1871-07-29an, Tudelako haltetuen alde suskripzioa irehi zen. Abuztuaren 20an, 552 biztanle zeuzkan Alkizak. Irailaren 1ean udalak jakinarazi zuen 14 jaio tza eta 3 heriotza egon zirela. 16an Rufino Alvarez medikuak ziurtatu zuen, Maria Dolores Mugika 2 urtekoa, esteetako odol jario batengatik hil zela. Kontzejuko tabernaren errematea aldundiak onartu egin zuen 100 pezetan. Batzar orokorretara ez zirelako joan, 2.400 errealeko ixuna jarri zieten udalkideei. Nahiz bere desadostasuna adierazi, udalak ixuna ordaindu egin zuen. 1872-01-30an, Alkiza, Tolosan egin nahi zen pobreentzako etxearen alde azaldu zen. 28an udalari adierazi zitzaion baztanga kasua azaldu zela eta gaixoa eta laguntzen ziotenak, ixolatu egin behar zituela eta sendatzen zenean, egon zen gela, erropa eta beste gauz gutiak desinfektatu, eta aparte medikuak agintzen zituen neurriak bete. Martxoaren 10ean bete ziren agindutako neurri gutiak. Apirilaren 6an 18tik 40 urtetarainoko gaixo zeuden pertsonen zerrenda hau zen: Josè Maria Beobide, Josè Miguel Sàizar, Juan Pedro Sàizar. Maiatzean adierazi zuen udalak ez zela iñor desagertu herritik ezta ere indultatutako iñor azaldu. 15ean udalak ziurtatu zuen ez zela iñongo zaurituriк atenditu herrian. 26an epailetarako hauek osatutako zerrenda bidali zen: Pedro Ignacio Roteta, Pedro Antonio Aranzabe eta Josè Manuel Zuazti. Maiatzeko batzar partikularrean, Pedro Maria Aldazabal izan zen Ainssu berreluzko ordezkaria. Ekainaren 11an, 40. 040, 25 pezetan egin zen balorazioa errentena. Honen arabera animali hauek zeuden zentsatuak: 4 zaldi, 87 asto, 478 behi eta idi, 781 ardi, ahuntz 1 eta 293 txerri. 1872-09-30an, 56 hautesle eta 48 hautagai zeuden Alkizan. Abuztuaren 1ean Rufino Alvarez medikuak ziurtatu zuen, Maria Leona Saralegui bi urtekoa gastrika tifoidea batengatik hil zela. 10ean jakinarazi zen, 3 jaiotza, ezkontza, ehileta eta ziudadania 1 egon zirela. Irailaren 4an Josè Otegi izendatu zuten bake epaile, San Agustin Labaka izendatu zuten ordezko epaile. 28an Frantzisko Etxeita izendatu zuten fiskal. Rufino Alvarez medikuak ziurtatu zuen, Frantziska Antonia Vitoria, Belauntzan jaio eta Alkizan bizi zena 83 urterekin gastroenterito kronika batengatik hil zela. Ez zegoela sistema berriko neurri eta pisurik jakinarazi zitzaion gobernadoreari. 1873-01-06an Rufino Alvarez medikuak ziurtatu zuen, Ana Maria Arsuaga, 74 urtekoa, katarro gastrikoarengatik hil zela. 1873-03-29an: alkatea eta bi zinegotzi Amerika tara joan zirela eta komisio hau osatu zen herrian: Juan Martin Olasagasti, Juan Kruz Urruzola, Josè Antonio

Urrutzola eta Pablo Maria Legarra. Juan Kruz Urrutzolak hartu zuen behin be-
-hiñeko alkatetza. Apirilaren 12an; Rufino Alvarez medikuak ziurtatu zuen
Simón Sarregui, 81urtekoa, Bidanian jaio eta Alkitzan bizi zena buru ko atake
batek emanda hil zela. 22an jakinarazi zen, Juan José Zuazti, Pedro Maria
Aldazabal, Rafael Usobiagea, Amerriketara eta José Antonio Urrutzola Tolosaraspen
zirela martxoan. Maiatzaren 7an udalak adierazi zuen, 30 lagunerko
partida karlista bat azaldu zela herrian gaueko 9 etan, burua zein zen
ez zekitela eta 2 ½ ak aldera Hernialderuntz joan zirela. Partida hau Santa
Kruz apaizarena zen, Iturriotzko burrukaren ondoren, errettiroan zijoaztela
erretorearen etxean alaldu, deskantzu pixka hartu, Herni aldera joan ziren.
Kuriositate bat gertatu zen, Santa Kruz lo kuluxka bat egitera joan zela apro-
-betxatuz, jabonero bere 2goa, neskamearekin sukaldera joan zen pattar
tragoxka bat egitera, eta han zeudela, Santa Kruz jeiki eta harrapatu
zituen. Esan beharrik ez dago botako zien bronka, bere koadrilakoeri
alkohola edaten eztziela utzen. 27an Valentin Garinek jakinarazi zion
herriari, Joaquin Maria Saizar alkizarrari jarraitzen ari zitzaion kasuan
uste zela, Iturriotzko burrukan, hil zela eta egin ziren peskisen ondoren
otsamendi taberna inguruan lurperatu zutela eta informazioa bidaltzeko
1873-01-15an, Kapitain jeneralak herri honetan egin zuen atakean hilda gerta-
tatu zen Nicolás Sein Hondarribikoa. 1873-09-05an, Jabetza, industria eta ko-
-merziko, aberastasun ezargarrian 4.000 errealetik pasatzen zirenen
zerrenda hau zen: Amalia Tapia: 9133 erreal - 4566. Esteban Alquizalete:
12.761 erreal - 6380. José Ignacio Urrutzola, Tolosan bizi zena: 4816 erreal - 2408.
José Ignacio Aranburu: 4150 erreal - 2.075. José Antonio Legarra: 4786 erreal -
2393. Franzisko Anjel Etxpeleta (Frantzia) 5.200 erreal - 2600. Juan José Gaiztarro
Anoetakoa: 5367 erreal - 2683. Jerónimo Tapia (Larraulkoa) 4842-50 erreal -
2421. 1873-10-25, Juan Kruz Urrutzola alkateak, jabetza, industri eta komertzioak
1867-an, zeukan egoeraren erresumena eman zuen, urteko 4.000 errealetik gora
deklaratu zuenenarenaerenak hau zen: Esteban Alkizaletek: 10.095 erreal. Amalia Tapia
7.048 erreal. Juan José Gaiztarro Anoetakoak: 4030 erreal. Franzisko Anjel Etxpeleta
(Frantzia) 4.000 erreal: Guztira: 28.170 erreal. Urriaren 24an, Gogorza idazkariak
adierazi zuen Ursula Aranguren hildakoaren ondasunak eta baserriak
Miguel Anjel Etxpeleta, Andoaingo erretorea zen Fidel Lizarraga eta Amasa
Billabonako, Juan Luis Zumetaren artean banatuak zeudela eta hauek
Frantziara aldegin zutenez, udalak ez zeki eta beraien berririk. Azaroaren 24
Juan Kruz Urrutzola alkatearen aurrean, Juan Antonio Saizar eta Juan José Larra
testigu zirela, Gogorza idazkariak adierazi zuen arratsaldeko 4etan azaldu zela

Maria Bautista Aranzabe, seme bat zuela soldadu karlistekin, Frantzisko Mar
Arsuaga eta libratu egin nahi zuela, beste semerik ez zuelako eta horregatik
eskean ibili behar zuela bizi modua ateratzeko, 200 errealeko errenta zu
baiñan erretenitua, horregatik errespeto gutxiarekin, eskatzen ziola semea
libra zezala soldadutzatik. 1873-12-22an, jabetza, industria ekomertzioko erre
-ten zerrenda honela zegoen: Amalia Tapia: 4566 erreal. Esteban Alkazalete: 6380 erreal
Josè Ignacio Urrutola: 2400 erreal. Juan Ignacio Aranburu: 2075 erreal. Josè Antonio
Legarra: 2393 erreal. Juan Josè Gaiztarro: 2083 erreal. Jerònimo Tapia: 2424 erreal
Luis Arzoaga: 2395 erreal. Pedro Camiño: 2224 erreal. Gabriel Aranburu eta Rufi
-no Alvarez izendatuak izan ziren epaitegirako eta biak errenuntziatu egin
zuten, batak 76 urte zituelako eta eriñdua zegoelako eta besteak mediku
zelako eta hargaik batera eziñak zirelako. 124 hautesle zeuden zentsoan
udal hauteskundeetarako 1874-01-10an, 4.000 errealeko errenta baiño gehiago
zeukatenak hauek ziran: Juan Esteban Alkazalete: 10.095 erreal. Amalia Tapiaizeuk
erreal. Frantzisko Gaiztarro: 4030 erreal. Frantzisko Anjel Zupelda: 4.000 erreal.
Baimena eman zitzaion udalari: Eceiza, Iruretagoyena, Iruretagoyena, Rotaeta
eta Aranzabe jaunen aurka epaitegietara joateko, baiña gastuak udalak
ordaindu behar zituela adierazten. 1874-02-07an, Maria Luisa Errazquin
Otsamendi Garaikoa baserriko tabernariak, aurreko abenduaren 25etik 26ra
González Kapitain jeneralaren soldadu errepublikanoak egin zituzten kal-
-tzen zerrenda aurkeztu zuen, 1.080 erreal egiten zutenak. Berdin egin zuen
Eugenio Urkizuk, Karabeka baserrian egin zituztenekin, guztira 123 erreal
egiten zituztenak. Urte haietan behin behineko alkateak hauek ziren Juan
Kruz Urrutola, Josè Maria Irazusta, Martin Olasagasti eta Agustin Labaka
1874-03-20an, Enrique Chaconek adierazi zion alkateari, Frantzisko
Maria Legarrari itzultzeko, hospital bezela erabili zen etxea, errenta or-
-daintzeko eta materiala jasotzeko behar zen tokiara eramanarte.
Martxoaren 26an otsaileko suministroak ordaintzeko dirua aurreratu zu
-tenak hauek ziren: Juan Kruz Urrutolak: 300 erreal. Josè Antonio Urrutolak:
80 erreal. Juan Martin Olasagastik: 100 erreal. Pascual Gaiztarrok: 80 erreal.
Josè Ignacio Gabirondo: 100 erreal. Blas Asteasuk: 80 erreal. Agustin Labakak:
200 erreal. Pedro Josè Olanok: 240 erreal. Pedro Antonio Ugaldek: 160 erreal.
Josè Antonio Legarrak: 100 erreal. Josè Manuel Etxamendik: 80 erreal. Josè Mari
Irazustak: 100 erreal. Josè Manuel Zuaztik: 200 erreal. Bautista Dorronsorok: 100

erreal. Guztira 2.040 erreal. 28an harridura handia hartu zen, Gregorio Goyorz
idazkaria, armak hartzera behartzeak eta berriro, eskatu zitzaion aldundia
-ri, libratzeko horretatik, begi bat galdua zuelako eta gaiñera beste iñor ez
zelako aurkitzen, hargu horretarako prestatua zegoenik, horrek herriari ekarri
-ko liskio leen kaltzekin, eta hori ez bazuen egiten, hargu guztien dimisioa
onartzeko. Aldundiak udal berria onartu zuen eta hauek osatzen zutenialkate
Sosé Maria Irazusta. Alkateordea: Felipe Antonio Zubasti. Zinegotziak: Sosé
Martin Mintegiaga. Suan Antonio Urrutola. Sosé Antonio Legarra eta Pedro
Antonio Ugalde 1874-08-30an erretenitutako eurentak, 74.117 erreal dirutan eta
498 anega gari ziren. 1874-09-15an, garitan 500 erreal baiño gehiago zeutkatenak
Guztira: 94.830 erreal urtean osatzen ziturtza. 1874-11-29an, Andrés Olasagasti sol-
-dadua hospital militarretik alde egin zuela eta herrian edo etxean balego
Tolosako komandantziari agertuarazteko agindu zitzaion udalari. 1874 ko
urte bukaeran, Fransisko Maria Legarrak deklaratu zuen, Alkizako kanposan
-tuan lurperatuta zeudela ondorengo soldadu errepublikanoak: Nicolás Sein Gar
-mendia, Irungoa, 1go batailoikoa, ~~1873-07-26ko~~ gauean hila aurreko gauean
eduki zituen zauriengatik. Pedro Arteaga Billabonakoa, 1go batailoikoa, gerrako
akzioan hila, 1873-10-17an. Sosé Manuel Arana, Hernanikoa, 1go batailoikoa
gerrako akzioan hila, 1873-10-17an. Suan Manuel Lasa Laiñaokoa, 1go batailo
-koa, gerrako akzioan hila, 1873-10-17an. Eustaquio Iraurtzaga, Aramaiokoa
4garren batailoikoa, 1873-11-30an hila, biruelagatik. Suan Sosé Izaguirre Irura-
-koa 4garren batailoikoa, balazo baten ondorioz hila, 1874-02-14an. 1875-03-04ko
Antonio Arzallusek adierazi zuen, Sosé Ignacio Gabirondo eta Pascual Saizarrek
10 fusil eta 9 bayoneta entregatu zituztela dazraulen, Billabonan jasotakoak
baiño bayoneta bat gutxoago eta agindu zion entregatu zitortenen eta
ez zitortenen zerrenda bidaltzeko. 1875-03-04an, alkateak agindu zion
Ignacio Ceberiori, 3 egunneko epean, 157,30 erreal, irakaslearen eta medikua-
-ren kuotengatik zor zituenak ordaintzeko. Baita ere 8¾ lakari artu.
1875-~~12~~-31an egindako bilkuran aldundiak eskatuta libre geratu ziranek kar-
-listen partidan soldadu zeuden familikoeri hilero kuota bat ematea era-
-baki zen modu honetara: Agustin Legarrak: 15 erreal. Sosé Miguel Jaschilo
Isidro Usandizagak: 8. Sosé Maria Beobidek 5. Suan Pedro Saizarrek: 3. Sosé
Ignacio Aguirreurretak: 3. Liberalak zirelako: Agustin Labakak: 25. Suan
Sosé Zuaztik: 20 eta Sosé Manuel Zuaztik: 15 erreal